

Ordiziako Udala

2024ITGB0001

Ordizian, **2024ko urtarrilaren 18a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **18 de enero de 2024** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Adur Ezenarro Agirre

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK

Maitane Alvarez Garciandia (EH BILDU ORDIZIA)

Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)

Miren Alazne Sukia Galparsoro (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)

Ana M^a Sanchez Herraiz (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)

IDAZKARIA

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK

AZTERTUTAKO GAIAK

ASUNTOS TRATADOS


EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

1. 2023ko azaroaren 23a ohiko bilkurako akta onartzea (osatutakoan bidaliko da onartzeko).
2. Idazkaritza eta Kontuhartzailetzan egon diren aldaketen berri ematea.
3. Pertsonalaren egoeraren berri ematea.
4. 2023. Urte amaierako aurrekontuan egindako aldaketen azalpenak (kreditu globaletik transferentziak ITRC espdienteak)

1. *Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 23 de noviembre de 2023 (una vez elaborada se remitirá para su aprobación).*
2. *Dación de cuenta de las modificaciones que se han realizado en los departamentos de Intervención y Secretaría.*
3. *Dación de cuenta de la situación de Personal.*
4. *Explicaciones- aclaraciones sobre las modificaciones de fin de año sobre el presupuesto de 2023 (transferencias del crédito global expedientes ITRC).*

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAFZRFC.Kt7j>



Ordiziako Udala

2024ITGB0001

- | | |
|--|--|
| 5. Kontratu txikien dekretuen kontu ematea (SCTX espedienteak) | 5. <i>Decretos de abono de contratos menores (expedientes SCTX).</i> |
| 6. Batzorde Paritarioa ospatzeko data zehaztea. | 6. <i>Fijar fecha de celebración de la Comisión Paritaria.</i> |
| 7. Zenbait txosten eta eskaera. | 7. <i>Informes y solicitudes varias.</i> |
| 8. Galde-eskeak. | 8. <i>Ruegos y preguntas</i> |

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:


- | | |
|--|--|
| 1.- Ormazabal etxea (Iturtxo). | 1.- <i>Casa Ormazabal (Iturtxo).</i> |
| 2.- Ordizian hezkuntzaren inguruko afera . | 2.- <i>Conflicto entorno al tema de educacion en Ordizia .</i> |

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 14:45etan

AMAIERA ORDUA: 16:52etan





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2023ko azaroaren 23ako bilkurako akta onartzea.

Aurreko akta Ainhoa Esnaola Idazkariak amaiera eman behar dio, ondorioz ez da aurkeztu eta hurrengo bilkurarako prestatuko da.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 23 de noviembre de 2023

El acta de la sesión anterior lo debe finalizar la Secretaria Ainhoa Esnaola, en consecuencia no se ha podido presentar. Se estima se podrá aprobar en la siguiente Junta.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Idazkaritza eta Kontuhartzailtzan egon diren aldaketen berri ematea.

3.- Pertsonalaren egoeraren berri ematea.

Alkateak berri eman du azken hilabeteetan Idazkaritza eta Kontuhartzailtza sailean egon diren aldaketen inguruan. Hurrengo hileetan eman daitezkeen aldaketak ere adierazi ditu.

Azaldutazkoaz gain, 2023 urteko OPEaren inguruan hartutako erabakiaren, zerbitzu-eginkizun egoeran dauden postuak sartzearena alegia, nondik norakoak agertzen ditu.

Bestalde, arrazionalizazio plana aurrerago egiteko asmoa dagoela adierazten du, gehienbat, plantilla eta zerbitzuen optimizazioa eta egokitzapena lortzeko.

Azkenik, Paritaria deitzeko eguna ondo noiz datorkien galdetzen du. Oraingoan fitxaketarako barne arautegia onartu beharko gurekela adierazten du.

2.- Dación de cuenta de las modificaciones que se han realizado en los departamentos de Intervención y Secretaría.


3.- Dación de cuenta de la situación de Personal.

El alcalde da cuenta sobre las modificaciones en la plantilla en los departamentos de Secretaría e Intervención. De la misma forma ha adelantado las modificaciones que se pueden preveer actualmente.

Además de lo expuesto, se recogen los pormenores de la decisión adoptada en torno a la OPE 2023 de incluir puestos en comisión de servicio.

Por otra parte, señala la intención de realizar un plan de racionalización más adelante, principalmente, para lograr la optimización y adecuación de la plantilla y los servicios.

Finalmente pregunta cuándo se puede reunir la Comisión Paritaria. Y se indica que esta vez deberíamos aprobar la normativa interna de fichajes.



Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ana M Sanchez Zinegotziak galdetzen du OPEan irtengo diren postuak adosteko legeak zein prozedura ezartzen duen, hau da, langileen ordezkariekin hitzartu behar den, edo zein organok erabaki dezaken.

La Concejala, Ana M Sánchez, pregunta qué procedimiento establece la ley para acordar los puestos que saldrán en la OPE, es decir, si hay que pactar con los representantes de los trabajadores, o qué órgano puede decidir.

Galdera erantzuteko Idazkariak hitza eskatzen du, eta adierazten du OPEan aterako diren postuak hautatzea Alkatearen eskumena dela, eta, ondorioz, ez duela inolako negoziatziorik behar. 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 21 artikuluan adierazten du Alkateari dagokiola:

La secretaria solicita la palabra para contestar a la pregunta indicando que la elección de los puestos que van a salir en la OPE es competencia del Alcalde, por lo que no requiere negociación alguna. El artículo 21 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local señala que corresponde al Alcalde:

g) Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat etorritz; langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako proben oinarriak onartzea; eta finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

g) Aprobar la oferta de empleo pública de acuerdo con el Presupuesto y la plantilla aprobados por el Pleno, aprobar las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de provisión de puestos de trabajo y distribuir las retribuciones complementarias que no sean fijas y periódicas

Zinegotziek paritaria egiteko eguna eta ordua hitzartuko dutela adierazten dute

Los concejales indican que pactarán entre todos el día y la hora.


Jakinaren gainean geratu da batzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- 2023. Urte amaierako aurrekontuan egindako aldaketen azalpenak (kreditu globaletik transferentziak ITRC espdienteak)

4.- Explicaciones- aclaraciones sobre las modificaciones de fin de año sobre el presupuesto de 2023 (transferencias del crédito global expedientes ITRC).



Ordiziako Udala

2024ITGB0001

Alkateak berri eman kreditu globaletik egin diren mugimenduetaz. Zehazki adierazi du aldaketa txikiak egin direla urtea amaitzean egon diren alde negatiboak saihesteko. Horretaz gain, adierazi du kreditu orokorretik finantziatu direla honakoak: Next dirulaguntzetako proiektuen estudioak eta Oianguko exekuzio proiektua esleitzeko proiektuaren berregituraketa

El Alcalde informa de los movimientos realizados desde el crédito global. Concretamente señala que se han realizado pequeñas modificaciones para evitar las diferencias negativas que se han producido al finalizar el año. Además, señala que se han financiado mediante el crédito global los estudios de proyectos de subvenciones Next y la reestructuración del proyecto de ejecución de Oiangu para producir a la adjudicación del mismo.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da inolako adierazpenik egiten.

No se han efectuado observaciones al respecto.

Jakinaren gainean geratu da batzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Kontratu txikien dekretuen kontu ematea (SCTX espedienteak)

5.- Decretos de abono de contratos menores (expedientes SCTX).

Alkateak aurkezten ditu azken kontratu txikien erlazioa jakinaren gainean egon daitezen.

El alcalde presenta los decretos con la relación de contratos menores perfeccionados para que tengan constancia de los mismos.

Eztabaida


Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da inolako adierazpenik egiten

No se han efectuado observaciones al respecto.

Jakinaren gainean geratu da batzarra.





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Batzorde Paritarioa ospatzeko data zehaztea.

Zehazteke gelditzen da.

6.- Fijar fecha de celebración de la Comisión Paritaria.

Queda por confirmar.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da inolako adierazpenik egiten

No se han efectuado observaciones al respecto.

Jakinaren gainean geratu da Batzarra.

7.- Zenbait txosten eta eskaera

Ez da inolako adierazpenik egiten.

7.- Informes y solicitudes varias.

No se han efectuado observaciones al respecto.

8.- Galde-erreguak

Alkateak adierazten du Majorin lehen bilera egin nahi dela bertan hartu behar diren erabakien berri emateko. Gehienbat esleitu behar den kontratuaren inguruan azalpenak emateko, eta egun dauden arazoetan erabakiak hartzeko. Jakinaraziko da noiz den bilera

8.- Ruegos y preguntas.


El alcalde indica que en Majori se quiere celebrar la primera reunión para informar de las decisiones que se deben tomar en la misma. Se procederá a dar las pertinentes explicaciones sobre el contrato que ha de adjudicarse, y se procederá tomar las decisiones pertinentes sobre los problemas existentes. Se comunicará la fecha de la reunión.

Mila Sukia zinegotziak galdetzen du zer gertatzen den Ormazal Etxea (Iturtxo) egiteko lizentziekin.

La concejala Mila Sukia pregunta qué pasa con las licencias en la obra de Ormazal Etxea (Iturtxo).

Alkateak adierazten du Hirigintza saileko arduradunak prozesua gelditu duela, eta

El alcalde indica que la responsable del área de Urbanismo ha parado el proceso. Pero se ha conversado con la responsable



Ordiziako Udala

2024ITGB0001

horren inguruan hitz egin dutela aste honetan. Hirigintza Sailean dauden atzerapenak aztertzen dabiltzala, eta irtenbideak aurkitzeko aukerak erabakitzea dagokiela.

sobre este problema esta misma semana. También se están estudiando los retrasos existentes en el Departamento de Urbanismo, y corresponde decidir sobre las posibles soluciones para atajar el problema.

Mila Sukia zinegotziak galdetzen du zein puntutan dagoen hezkuntzaren inguruan Ordiziako herrien dagoen afera. Julen Mendozak bere lana amaitu duen, eta zein erabaki hartu den. Alegia, arazo larria dagoela Ordizian, eta ez soilik eskolen inguruan. Hori baino larriagoa den arazo bati aurre egin behar diola Udalak: segregazioari. Hau da, bi arazo barneratzen direla egun, eskolen arteko oreka eza eta bizikidetzak. Biak modu berean jorratzen gabiltzala, baina larriena bizikidetzan ematen den arrakala dela. Beraz, ez duela ulertzen zergatik itxaron behar den Julen Mendozari Eusko Jaurlaritzaren aurrean, organo eskumenduna izanik, Ordiziaren egoera denon artean mahaigaineratzeko.

La concejala Mila Sukia se pregunta en qué punto se encuentra la controversia sobre educación existente en Ordizia. Según parece Julen Mendoza ha terminado su trabajo, y quiere saber qué decisión se ha tomado. Lo que es notorio es que existe un problema serio en Ordizia, y no sólo en torno a las escuelas. Es decir, el Ayuntamiento se enfrenta a un problema mucho más grave: la segregación. Tenemos claro que en la actualidad se identifican dos problemas, el desequilibrio entre las diversas escuelas, y la convivencia. El problema radica en que estamos abordando los dos temas de la misma manera, pero que la gravedad reside en la brecha existente en la convivencia. Por lo tanto, no entiende por qué hay que esperar a Julen Mendoza para entablar o abordar todos el tema de manera conjunta ante el Gobierno Vasco (siendo el órgano competente).

Alkateak adierazten du Julen Mendozak hilabete amaiera arte itxaroteko eskatu duela, bere gogoetak adierazi eta egoeraren aurrean erabakiak hartzeko. Horrek adieraziko digula zein egoeretan daude, eta prozesua konplexua dela.

El alcalde manifiesta que Julen Mendoza ha pedido esperar a fin de mes, para expresar sus consideraciones que nos servirán para tomar decisiones oportunas. Puesto que ello nos indicará la situación en la que se encuentra el problema, pero de todas formas el tema reviste complejidad.




Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.

Sinatzaileak
Firmantes

IDAZKARIA / LA SECRETARIA
Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave



Ordiziako Udala

2024ITGB0001



Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAFZRFC.Kt7j>